

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

179. zenbakia

Data 2008-09-18

29169 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK
39/2008 ebazpera, 2008ko irailaren 10ekoa, 2007ko abuztuaren 865/07
FAk digitalizazio softwarea homologatzeko jasotzen duen prozedurari
buruzkoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

39/2008 Ebazpena, 2008ko irailaren 10ekoa, 2007ko abuztuaren 865/07 Foru Aginduak digitalizazio softwarea homologatzeko jasotzen duen prozedurari buruzkoa.

Fakturen, ordezeko agirien eta beste agiri batzuen digitalizazio ziurtatua egin daiteke, horiek elektronikoki gorde daitezten eta, horri esker, paperezko jatorrizko agiriak erabil ez daitezten, hala jasotzen baitu 2007ko abuztuaren 2ko 865/07 Foru Aginduak, fakturazio telematikoari eta fakturak modu elektronikoz gordetzeari buruz Fakturatzeko obligazioak arautzekoak, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, ezartzen dituen xedapenak garatzen dituenak.

Horretarako, beharrezkoa da, alde batetik, digitalizazio software ziurtatua izatez gain, digitalizazio prozesuak agiri bakoitzaren irudi fidel eta oso bat bermatzea, sinadura elektronikoz izenpetua, eta, bestetik, digitalizazioa datu base dokumental baten inguruan antolatzea, digitalizaziorako nahiz horren artapenerako hainbat berme emanda.

Digitalizazio softwarea garatu eta homologatu nahi duten entitateek zer tramite bete behar duten zehaztuta dago aipatu artikulua 3. apartatuan; Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak ebatziko du homologazioa. Hori horrela, irudi digitalizatua baliagarria izango bada, digitalizazio ziurtatuaren prozesuaren fideltasuna bermatzeko behar diren prozedurak eta kontrolak izan behar dira, irudiaren kalitatea eta haren metadatuak zaintze aldera, alde batera utzita noiz erabili den digitalizazio softwarea. Prozedura eta kontrol multzoari kalitatea kudeatzeko plana deritza, eta digitalizazio softwarea homologatzeko eskaerarekin batera aurkeztu behar da.

865/2007 Foru Aginduak amaierako lehen xedapenean Ogasuneko zuzendari nagusiari baimena ematen dio foru agindu hori aplikatzeko beharrezko diren ebazpenak eman ditzan.

Horiek horrela, hau ebatzi dut:

Lehena. Erabilera arrunteko formatu estandarrak.

Erabilera arrunteko formatu estandartzat hartu eta gisa horretan onartuko dira Ogasun eta Finantza Departamentuaren web gunean argitaratutako formatuak (<http://www.gipuzkoa.net/ogasuna>), ISO 19005 (PDF/A), PNG, edo JPEG2000 formatuen antzekoak badira. Dena delako konpresio teknika erabilita, ez da informaziorik galduko.

Plataforma teknologikoaren independentzia bermatu eta zaharkituta geratu ez dadin, beharrezkoa da formatuak autodokumentatuak izatea eta edukiari dagokionez laguntzarik behar ez izatea, irudietarako sarbidea ziurtatze aldera.

Bigarrena. Bereizmen maila.

Irudi digital kodetuaren bereizmen mailatzat hartzen da lortu den irudiaren bereizmen espaziala. Amaierako irudiaren bereizmen espazialeko maila gutxienez 200 pixel/hazbetekoa (hazbeteko pixelak) izan behar da, zuri-beltzeko, koloreko nahiz gris eskalako irudietarako.

Hirugarrena. Irudi fidela eta osoa bermatzea.

Iruditzen hartuko da faktura bakoitzeko desberdina den eta faksimile moduan aurreko apartatuan jasotako parametroen barruan fakturaren itxura fisikoa irudikatzen duen fitxategi digital bakar bat, orri batekoa izan edo batzuetakoa izan. Irudiak jatorrizkoaren geometria errespetatu behar du, tamainei eta proportzioei dagokienez.

Irudia fidel eta osotzat hartuko bada, prozesu automatiko batean lortua izan behar da, zeinean, etenik egin gabe eta operadorerik inoiz jardun gabe, aipatu ordenan ataza hauek egiten diren:

1. Faktura bitarteko fotoelektriko baten bidez digitalizatzea, gailuari lotutako sistemaren memorian fitxategi bat lortzeko moduan.

2. Irudi hori optimizatzeko prozesua gauzatzea, irakurgarritasuna bermatze aldera, jatorrizko agiriaren eduki osoa ikusi eta kudeatzeko baliagarria izateko moduan (unbralizazioa, berrorientazioa, ertz beltzen deuseztatpena).

3. Irudiaren fitxategian sartzea, metadatu gisa, Zerga Administrazioak exijitutako informazioa: Homologazioa identifikatzeko erreferentzia, denbora-marka bat, digitalizazio softwarearen izena eta bertsio zenbakia. Metadatuak irudikatzeke, XMP izeneko zehaztapen estandarra (Extensible Metadata Platform) finkatu du erreferentzia gisa Ogasun eta Finantza Departamentuak.

4. Irudi optimizatua eta metadatuak dituen fitxategia sinatzea, sinadura elektronikoko balioztatuaren bidez edo, digitalizazio sisteman instalatuta eta digitalizazio ziurtatuaren softwarean adierazita dagoen ziurtagiri elektronikoko batean oinarriturik, Foru Aldundiak onartutako sinadura elektronikoko beste edozein sistemaren bidez. Sinatzeko prozesuak denbora-zigilua eraman dezake, eta berarekin ekarriko du, nolana ere, aipatu fitxategiaren marka edo balio laburtzailea aurretiaz kalkulatzeko. Fitxategiaren marka edo balio laburtzailea kalkulatzeko, gutxienez baldintza teknologikoak betetzen dituen edozein algoritmo erabil daiteke; gutxienez SHA-1 ezarrita dago teknologiaren gaur egungo egoran. Fitxategia, amaierako irudia eta horren metadatuak batera aldatu gabe geratu behar dira momentu horretatik aurrera.

Fakturaren irudi digitalizatua baliagarria izango bada, beharrezko prozedurak eta kontrolak izan egin dira, irudia digitalizazio ziurtatuko prozeduran digitalizatutako agiriarekin fidela dela bermatze aldera.

Laugarrena. Kalitatea kudeatzeko plana.

Kalitatea kudeatzeko plantzat hartuko da prebentzioz mantentzeko eragiketen eta ohiko egiaztapenen multzoa, horiek betez momentu guztietan digitalizazio softwarearen egoerak eta horri lotutako gailuek irudi fidel eta osoak sortzen dituela bermatzen dutenak. Helburua da irudiaren eta horren metadatuaren kalitatea zuzena dela ziurtatzea, kontuan hartu gabe noiz erabiltzen den digitalizazio softwarea.

Bosgarrena. Irudiarekin batera joan behar diren datu gehigarriak.

Digitalizazio ziurtatuaren emaitza datu base dokumental batean antolatu behar da, eta dokumentu digitalizatu bakoitzeko datuen erregistro bat gorde. Erregistro horretan agertu behar dira abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 62. artikuluan eta bere hurrengoetan jasotako erregistro liburuaren exijitutako eremu guztiak, eta, gainera, beste eremu batek dokumentu digitalizatuaren irudi binarioa jaso behar du, edo informazio hori duen fitxategiarekin lotu. Kasu bietan, dokumentuaren irudiak sinadura elektronikoa eraman behar du ebazpen honetako hirugarren apartatuan adierazitako eran.

Seigarrena. Datu basea sinatzea.

865/2007 Foru Aginduak 8. artikulua 2.d.1 apartatua jasotakoaren arabera datu basea sinatzeko, Sinadura elektronikoen abenduaren 19ko 59/2003 Legeak adierazitako sinadura elektronikoko edozein sistema erabil daiteke.

Zazpigarrena. Erabat eta berehala sartzea.

Ondorio horietarako, ulertzen da erabat eta berehala sartzeko dela datuak on line kontsulta daitezkeenean dokumentuak eta euren edukiaren xehetasun guztiak ikusteko, bilaketak datu jakinen arabera egiteko –abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuaren 62. artikulua eta bere hurrengoetan arautzen dituen erregistro liburuetan islatu beharreko datuen arabera–, jatorrizko formatuak on line kopiatu edo deskargatzeko, eta kontrol fiskaleko jarduketak egiaztatu edo dokumentatzeko beharrezkoak diren agiriak inprimatzeko.

Era berean, datu hauek ikusteko aukera eman behar du datu baseak: Irudiaren sinadura elektronikoenak, hala badagokio, denbora-zigilua barne; ziurtagiriaren informazioa eta ebazpen honetako hirugarren apartatua aipatutako metadatuak; homologazioa identifikatzeko erreferentzia; denbora-marka bat; eta digitalizazio softwarearen izena eta bertsio zenbakia.

Zortzigarrena. Eskaerak.

Softwarea garatzen duten eta digitalizazio softwarea homologatu nahi duten entitateek eskaera bat aurkeztu behar diote Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiari, Gipuzkoako Foru Aldundiko edozein zerga bulegotan.

Espanian edo Europar Batasuneko beste estatu batean kokatuta dauden softwarea garatzeko entitateek aurkeztu dezakete eskaera. Softwarea garatzeko entitateak hartuko da bere softwarea garatzen duena nahiz lehendik dauden software moduluak bateratuz softwarea osatzen duena.

Eskaeran jaso behar da 2007ko abuztuaren 865/07 Foru Aginduak 8. artikulua exijitutako baldintzak bete izanaren erantzukizun aitortpen bat, haien bete izanaren frogagiriarekin batera. Aipatu aitortpenean, harremanetarako pertsona edo pertsonak agertuko dira derrigorrez, haien helbide postal edo elektronikoenkin batera.

Honako hau aurkeztu beharko du eskatzaileak eskaerarekin batera: Batetik, digitalizazio ziurtatua egiteko prozeduraren arau teknikoaren deskripzioa bat; bestetik, datu base dokumentalaren sorreraren eta kontsultaren segurtasun, kontrol eta ustiapenarekin zer ikusia duten protokoloak edo arau eta prozedurak –zergapekoak paperean emandako jatorrizko dokumentuen irudi digitalizatuak bildu behar dituzten datu base dokumentalak–, eta azkenik, sinadura elektronikorako erabilitako sistemak.

Horrez gain, auditoretza informatikoaren alorrean kaudimen teknika kreditatua duen entitate independente batek egindako txostena aurkeztu behar da, bai eta egindako lanaren ebaluazioa ere. Txosten horretan entitateak adierazi beharko du noraino betetzen dituen entitate eskatzaileak aipatu foru aginduan eta ebazpen honetan ezarritako baldintzak homologatu nahi den digitalizazio ziurtatuaren sistema onartzeko, eta erabili diren prozedurei buruzko iritzia ere eman beharko du.

Era berean, aurreko laugarren apartatua aipatutako kalitatea kudeatzeko plana aurkeztu behar da. Izan ere, digitalizatu, sinatu eta datu basean gordetzeko prozesu osoan egin beharko da plana.

Aipatu planean azaldu beharko da digitalizazio softwareari lotutako gailuen mantentze lana, bai eta softwareari eragin diezaioketen beste alderdi batzuk ere, hala nola: Arau eta algoritmoen indarraldiari egindako jarraipena, datu basea mantentzeko arauak, digitalizazio softwarearen errendimenduari eragin diezaioketen sistema eragileen mantentze alderdiak.

Kalitatea kudeatzeko planak berari atxikitako ereduako formatu bat izango du, digitalizazio prozesua egingo duenak sinatu beharko duena.

Eskaeran ez badaude jasota arauz jasotako baldintza guztiak egiaztatzeko behar diren elementu guztiak, 865/2007 Foru Aginduak 8.3.c) artikuluan jasotakoari jarraituko zaio. Baldintzak egiaztatzeko, aitortutakoa zuzena ote den egiaztatu eta egoki deritzen frogak egiteko behar den informazio osagarria bildu dezake Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak.

Bederatzigarrena. Homologazioa baimentzea.

Behin egiaztatuta dokumentazioa aurkeztu dela eta 865/2007 Foru Aginduak jarritako baldintzak bete dela, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak homologazioa ebatziko du, hala badagokio, aipatu foru aginduak 8.3.f) artikuluan jasotako epean. Ebazpenean azalduta agertuko da zer baldintzatan eman den ebazpena, eta, ebazpen honetako hirugarren apartatuari jasotakoaren ondorioetarako, identifikazio erreferentzia bat emango zaie softwarearen izenari eta bertsio zenbakiari. Ogasun eta Finantza Departamentuaren web gunean (<http://www.gipuzkoa.net/ogasuna>) argitaratuko den zerrenda batean sartuko da digitalizazio software homologatua.

Ebazpenak homologazio eskaerari ezezkoa ematen dionean, baimena zergatik ez den eman zehaztu beharko da ukatzeko idazkian. Ezezko ebazpenaren aurka egin daiteke 865/2007 Foru Aginduak 8.3.e) artikuluan jasotakoari jarraituz.

Irudi digitalizatuak baliagarriak izango badira, aipatu foru aginduak eta ebazpen honek jarritako baldintzak bete behar ditu softwarearen erabiltzaileak.

Hamargarrena. Ebazpena aplikatzea.

Ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik aurrera aplikatuko da.

Donostia, 2008ko irailaren 10a.—Pedro M.^a Ruiz de Azua Galdos, Ogasuneko zuzendari nagusia.

(6800) (10253)